

9.KOSTU EGITURA

Proiektu honen kostu garrantzitsuenak, alde batetik, langileen soldatak dira, eta bestetik, proiektua aurrera eramateko beharrezko elementuak eta publizitatea ordaintzea dira. Ez dugu lokal bat erosi edo alokatu behar izanik, COVID-19arekin etxetik lan egitea erosoagoa dela ikusi dugulako.

Hasieran langileentzako ordenagailuetan inbertsio handia egin behar izan genuen. Gainera, kostu finkoak zein aldakorrak ditugu. Maileguaren kuota, soldatak, publizitatearen kostua, webgunearen mantentze-lanak eta Gizarte Segurantzako kuotak kostu finkoen barruan egongo lirateke. Kostu aldakorrak aldiz, papera eta bulegoko materialak dira.

